

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

NEKAZARITZA SAILA

Prozedura irekia besterentzeko Arabako Foru Aldundiak eta Hermuko Administrazio Batzarrak "Armuegi" dermioan partzuergoan duten OPko 323 "Arbolan eta Txaradua" mendiaren baso aprobetxamendua

1. Erakunde esleitzaila:

a) Erakundea: Arabako Foru Aldundia. Nekazaritza Saila. Nekazaritza Zuzendaritza. Mendi Zerbitzua.

b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Administrazio Kudeaketa Atala.

c) Espedientearen zenbakia: 806/17

2. Kontratuaren xedea: prozedura irekia besterentzeko Arabako Foru Aldundiak eta Hermuko Administrazio Batzarrak "Armuegi" dermioan partzuergoan duten OPko 323 "Arbolan eta Txaradua" mendiaren baso aprobetxamendua.

a) Gauzatzeko epea: 2018ko irailaren 30era arte.

3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era:

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: irekia.

4. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua: 54.292,30 euro (BEZa aparte).

5. Bermeak:

Behin-behinekoa: ez da eskatzen

Behin betikoa: kontratuaren esleipenaren zenbatekoaren ehuneko 5 (BEZa aparte)

6. Agiriak eta argibideak eskuratzea:

www.araba.eus Hasiera > Herritarrak > Gaiak > Nekazaritza > Mendiak > Baso aprobetxamenduak >

Kontratuaren administrazio alderdiei buruzko argibide eskaerak:

Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua

Probintzia plaza, 4, 1. solairua, 01001 (Gasteiz)

Telefonoa: 945181818 Luzapena: 52849

posta elektronikoa: jamurrio@araba.eus

Kontratuaren alderdi teknikoei buruzko argibide eskaerak:

Mendi Zerbitzua

Probintzia plaza, 4, 1. solairua, 01001 (Gasteiz)

Telefonoa: 945181818 Luzapena: 52108

posta elektronikoa: laquintana@araba.eus

Agiriak, dokumentazioa eta informazio osagarria eta gehigarria klausula ekonomiko-administratiboen agiriaren III. klausulan adierazitakoari jarraituz eskuratuko dira.

7. Kontratistaren berariazko betekizunak:

a) Sailkapena (taldeak, azpitaldeak eta kategoriak): ez da eskatzen.

b) Ekonomia eta finantza kaudimena eta gaitasun teknikoa: ikusi administrazio klausula berezien taulako E1 eta E2 puntuak.

8. Eskaintzak aurkeztea

a) Eskaintzak aurkezteko epemuga: 15 egun baliodun iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik.

Baldin eskaintzak aurkezteko azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunaren 14:30era arte luzatuko da epea.

b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: ikus administrazio klausula berezien taulako V. puntua.

c) Aurkezteko lekua:

Erakundea: Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.

Helbidea: Probintzia plaza, 5-behea.

Herria eta posta kodea: Gasteiz, 01001

Eskaera eta gainerako agiriak postaz bidaliz gero, bidalketa eguna egiaztatuko da eta Administrazioaren Erregistro Orokorri bidalketa horren berri eman telex, fax edo telegrama bidez, egunean bertan. Bi baldintza horiek bete ezean, ez dira agiri horiek onartuko, baldin eta eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gero jasotzen badira. Epe hori igaro eta hurrengo hamar egunetan agiririk jaso ez bada, agiri horiek ez dira onartuko inondik inora.

d) Behin eskaintza aurkeztuta, oso zergati arrazoituagatik baino ezin izango du baztertu eskaintzaileak.

e) Aldaerak onartzea: ez.

9. Eskaintzak irekitzea:

Erakundea: Mendi Zerbitzuaren bulegoak.

Helbidea: Probintzia plaza, 4-1. eskuina.

Herria eta posta kodea: Gasteiz, 01001

“B” gutun azala (kontratatzeko gaitasuna) ekitaldi pribatuan irekiko da, bederatzietan, Mendi Zerbitzuaren bulegoetan, eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hirugarren egun baliodunean.

A gutun azala (eskaintza ekonomikoa) ekitaldi publikoan irekiko da, hamar eta erdietan, Mendi Zerbitzuaren bulegoetan (Probintzia plaza 4, 1. ezkerre –Gasteiz–) eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondorengo seigarren egun baliodunean.

10. Informazio gehiago: ikus administrazio klausula berezien agiria.

11. Iragarki gastuak: esleipendunaren kontu izango dira.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriaren 27a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LOPEZ DE SUSO